

ARTE ESZENIKOAK

ARTE ESZENIKOAK	1
KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK ETA EBALUAZIO IRIZPIDEAK	1
1 GAITASUN BERARIAZKOA	1
1 konpetentzia espezifikoaren deskribapena	2
Ikasleen irteera-profilarekiko lotura	2
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	2
2 GAITASUN BERARIAZKOA	2
2 konpetentzia espezifikoaren deskribapena	3
Ikasleen irteera-profilarekiko lotura	3
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	3
3 GAITASUN BERARIAZKOA	3
3 konpetentzia espezifikoaren deskribapena	3
Ikasleen irteera-profilarekiko lotura	4
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	4
4 GAITASUN BERARIAZKOA	4
4 konpetentzia espezifikoaren deskribapena	4
Ikasleen irteera-profilarekiko lotura	5
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	5
5 GAITASUN BERARIAZKOA	6
5 konpetentzia espezifikoaren deskribapena	6
Ikasleen irteera-profilarekiko lotura	6
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	6
ONARRIZKO JAKINTZAK	7
A. Ondare eszenikoa.	7
B. Adierazpen eta komunikazio eszenikoak.	7
C. Interpretazioa.	7
D. Antzeztea eta eszenaratzea.	8
E. Harrera arte eszenikoetan.	8

ARTE ESZENIKOAK

Arte Eszenikoak ikasgaia bi mailatan ematen da, eta horietan curriculuma modu progresiboan garatzen da. Nagusiki praktikoa denez, esperimentazio eta esplorazio kolektiborako aukera ematen du. Azken batean, adierazkortasuna eta sormena sustatzeko espazio batez ari gara, eta arte eszenikoen (performatiboak barne) berariazko kodeak ezagutzeko ere balioko duena. Izaera praktikoa hori dela eta, ikasgai hau beste batzuekin ere lotzen ahal da; musika, ahots edo gorputz abileziak ere lantzen dituztenekin edo proiektu artistikoak planifikatu eta kudeatzeari lotutakoekin, hain zuzen.

Ikasgaia bost konpetentzia espezifikotan oinarrituta diseinatu da. Konpetentzia horiek etapako helburuekin eta Batxilergorako aurreikusitako funtsezko konpetentziekin lotuta daude. Haiei esker, ikasleek inguruko bizitza kulturalan parte hartzen ahalko dute, eta ondarea zabaltzeko eta baloratzeko ere balioko diete. Orobat, ikasleei laguntzen diete beren iruditeria aberasten, baliabideen errepertorio pertsonala handitzen, arte adierazpenez gozatzeko aukerak zabaltzen eta arte horiekin lotuta garapen pertsonal, sozial, akademiko edo profesionalerako aukerak identifikatzen. Era berean, irizpide estetikoak, komunikatzeko eta negoziatzeko trebetasunak, autoezagutza, sormena, enpatia, irudimena eta ekintzailatza bultzatzen dituzte.

Konpetentzia espezifiko horietatik zuzenean ateratzen diren ebaluazio irizpideak diseinaturik daude egiaztatzeko noraino bereganatu dituzten ikasleek konpetentzia horiek.

Konpetentzia espezifiko horiek aktibatzeak, beharrezkoa da ikasgaiko oinarritzko jakintza batzuk aktibatzea. Jakintza horiek bost bloketan antolatuta daude, baina ez dira nahitaez jorratu behar hemen agertzen den ordenan. Aitzitik, modu integratuan landu behar dira, ikaskuntza egoerek sortzen dituzten premien arabera, horrek ikasgaiaren ikuspegi globala izaten lagunduko baitu. Lehenengo blokeari

«Ondare eszenikoa» deritza, eta jorratzen ditu, alde batetik, arte eszenikoen tipologiak eta tradizioak eta, bestetik, denboran zehar izan dituzten aldaketak eta eraldaketak. Bigarren blokean –«Adierazpen eta komunikazio eszenikoak», alegia– esanahi eszenikoari lotutako hainbat sistema, bitarteko eta kode sartzen dira. Hirugarren blokea «Interpretazioa» da, eta ekintza dramatikoak errekreatzeko eta antzezteari lotutako elementuak biltzen ditu. Laugarren blokeari, berriz, «Antzeztea eta eszenaratzea» deritza, eta ikuskizun eszenikoari eta taldelanari lotutako jakintzak jorratzen ditu. Azkenik, «Harrera arte eszenikoetan» izeneko blokea dago; publikoa eta adierazpen eszenikoak aztertzeak estrategiak eta teknikak ditu hizpide.

Espero da ikasleak gai izatea oinarritzko jakintzak martxan jartzeko zenbait ikaskuntza egoeretan, zeinetan jardunen baitute beren ikaskuntza prozesuarekiko gero eta autonomoagoa eta arduratsuagoa den gizarte eragile gisa. Ikasleek hainbat funtzio hartzea beren gain askotariko adierazpen eta proposamenetan, halako moduz non errekreazio artistikoaren zati bizi bilaka daitezen; horra hor proposatzen den abiapuntua. Horri lagunduko dio, bada, ikasgaia helburu honetara bideratuta antolatzeak: proposamen bat prestatzea publiko mota eta eszenatoki desberdinetarako, balioko duena guztiek arteaz gozatzeko eta inguruko bizitza kulturala aberasteko. Horretarako, komeni da askotariko erreferentzia kulturalak dauzkaten piezak hautatzea.

1. KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK ETA EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1 GAITASUN BERARIAZKOA

Hainbat garai eta tradiziotako adierazpen eszenikoak aztertzea, eta, horretarako, haien ezaugarriak deskribatzea, testuinguruarekiko erlazioak ezartzea eta eragin eta proiektzio

posibleak identifikatzea, ondarea baloratzeko eta norberaren iruditeria aberasteko.

1 kompetentzia espezifikaren deskribapena

Kompetentzia honen bidez, ikasten da, batetik, hainbat garai eta tradiziotako ikuskizun eszeniko mota nagusien ezaugarriak identifikatzen eta deskribatzen, eta, bestetik, haien testuinguru historiko eta geografikoarekin erlazionatzen; hori guztia, haien jatorri edo isla diren eraldaketa sozialetan duten garrantzia baloratzeko. Aztertzen diren ikuskizunak beren testuinguruan kokatuta baloratzen ahalko dituzte modu egokian, garai eta testuinguru sozial jakin bateko produktuak diren aldetik; horrekin batera, hausnartzen ahalko dute izan duten bilakaeraz eta orainarekin duten loturaz. Horregatik, mendebaldeko kanona lantzeaz gain, komeni da beste kultura tradizio batzuk ere lantzea. Orobat, ondare eszeniko aberatsaren barruan sortzen diren erlazio motetan jarriko da arreta: batetik, formen eta estiloen arteko eraginak (aldi berean gertatzen direnak eta aldi desberdinetakoak), eta, bestetik, elementu jakin batzuk aldi batetik bestera iraun izana, baita estilo edo korrante jakin batek sortzen dituen erreakzioak, gaitzespenak edo subertsioak ere. Lanak zer testuingurutan sortu ziren aztertzean, generoikuspegia eta kulturaaniztasunarena txertatzeak, gainera, lagundu egingen du ikasleek uler dezaten emakumeek eta diskriminazioa jasaten duten talde etniko eta populazio taldeetako pertsonen historian zehar artean bete duten tokia eta garai bakoitzean haietaz izan diren kontsiderazioak. Ildo horretan, hainbat obratan haietaz eman den irudia ez ezik, arte eszenikoei egin dizkieten ekarpenak ere erakutsi beharko zaizkie.

Kompetentzia hau garatzeko, adierazpen eszeniko esanguratsuak aztertuko dira, harrera aktibotik abiatuta eta hiztegi tekniko egokia erabilita. Ahal dela, haien antzezpena ikustea izanen da haietara iristeko bidea: zuzenekoa edo erreproduzio analogiko edo digitalen bidezkoa. Testuen eta irudien iruzkina eta iturri bibliografikoen kontsulta ere erabilgarriak izanen dira lan horretan.

Ezagutzen dituztenez bestelako adierazpideak ezagutzeak balioko du ikasleen iruditeria aberasteko, eta beren sormen lan edo antzezpenetan aplikatzeko moduko ideiak eta teknikak jarriko dizkie eskura.

Ikasleen irteera-profilarekiko lotura

Kompetentzia espezifikoa hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, HKK3, ELK3, KD1, KD2, KPSII2, HK1, KKAK1 eta KKAK2.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. MAILA	2. MAILA
1.1. Hiztegi egokia baliatuta, hainbat garai eta tradiziotako adierazpen eszenikoen ezaugarri nagusiak identifikatzea, erlazioak ezartzea testuinguruarekin, eta jarrera irekia, interesa eta errespetua erakustea haiei harrera aktiboa egitean.	1.1. Hiztegi egokia baliatuta, hainbat garai eta tradiziotako adierazpen eszenikoak aztertzea, ezaugarriak deskribatzea, erlazioak ezartzea testuinguruarekin, eta jarrera irekia, interesa eta errespetua erakustea haiei harrera aktiboa egitean.
1.2. Loturak ezartzea hainbat garai eta tradiziotako adierazpen eszenikoen artean, eta egungo arte eszenikoetan duten eragina balioestea.	1.2. Hainbat garai eta tradiziotako ohiturak, gustuak eta erreferente eszenikoak kritikoki balioestea, eta haien bilakaerari eta orainaldikoekin duten harremanari buruzko gogoeta egitea.

2 GAITASUN BERARIAZKOAK

Esanahi eszenikoko sistema, bitarteko eta kodeen adierazpen aukerak esploratzea, jarduera praktikoen bitartez, haien erabilera sartzeko baliabideen errepertorio pertsonalean eta

komunikazio asmorako egokienak hautatzeko irizpidea garatzeko.

2 kompetentzia espezifikoaren deskribapena

Esanahi eszenikoko sistema, bitarteko eta kodeek eskaintzen dituzten adierazpen aukerak desku britzeak eta esploratzeak ahalbidetzen die ikasleei beren baliabideen errepertorio pertsonala aberastea, bai eta komunikazio behar edo asmo bakoitzerako egokienak hautatzen eta aplikatzen ikastea ere.

Hain zuzen, dramatizazioa, jolasa, sorkuntza kolektiboa eta inprobisazioa (pautatua edo libre) bitarteko egokiak dira esplorazio hori egiteko. Ikasgelan jarduera praktiko horiek eginez, ikasleek aukera izanen dute hainbat teknika eta estrategia deskubritzeko eta aplikatzeko, banaka zein taldeka, balioko dietenak egoera, ekintza eta gatazka dramatikoari buruz hausnartzeko edo pertsonaia aztertu, eraiki eta ezaugarritzeko.

Orobat, jarduera horiek oso tresna erabilgarriak izanen dira agertokian islatu nahi diren ideia, sentimendu eta emozioetara hobekien egokitzen diren baliabide plastikoak, literarioak, ikusentzunezkoak edo bestelakoak hautatzen ikasteko. Teknologia digitalei esker, gainera, baliabide horiek nola erabiltzen ahal diren erakusten duten askotariko adibideak daude eskura.

Adierazpen eta komunikazio eszenikorako aukerak esploratzeak autoezagutza, konfiantza eta motibazioa sustatzen ditu, eta honako alderdi hauek hobetzen laguntzen du: ideien eta iritzien aniztasunarekiko errespetua, berdinen arteko aberaste kulturala eta oztopo eta estereotipo sozialak, kulturalak edo sexistak gainditzea.

Ikasleen irteera-profilarekiko lotura

Kompetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, KD1, KPSII1.1, KPSII2, HK1, EK3, KKAK3.1.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. MAILA	2. MAILA
2.1. Esanahi eszenikoko sistema, bitarteko eta kodeen esplorazioan parte hartzea jarduera praktikoen bitartez eta ekimena, konfiantza eta sormena lagun.	2.1. Esanahi eszenikoko sistema, bitarteko eta kodeen esplorazioan parte hartzea jarduera praktikoen bitartez eta ekimena, konfiantza eta sormena lagun.
2.2. Ekintza dramatikoa, pertsonaien diseinua eta egoeren eta eszenen konfigurazioa errekreazioa, norberak dituen baliabideen errepertoriotik egokienak hautatuta.	2.2. Ekintza dramatikoa, pertsonaien diseinua eta egoeren eta eszenen konfigurazioa errekreazioa, norberak dituen baliabideen errepertoriotik komunikazio asmorako teknika egokienak hautatuta.

3 GAITASUN BERARIAZKOA

Ekintza dramatikoaren errekreazioa eta antzezpena, mota guztietako pertsonaiak eta gatazkak erakusten dituzten eszenen eraikuntza kolektibotik abiatuta; hori guztia, komunikazio eta negoziatio trebetasunak garatzeko eta autoezagutza, sormena, enpatia, irudimena eta espiritu ekintzailea indartzeko hainbat egoera eta testuinguruan.

3 kompetentzia espezifikoaren deskribapena

Ekintza dramatikoaren errekreazioak eta antzezpenak adierazpen eszenikoak ulertzen eta kultura ondarearen zati gisa aintzat hartzen laguntzen du, bai eta adierazpen pertsonalerako aukerak zabaltzen ere, interpretearen berezko trebetasunak eta teknikak (ahotsa, keinuak, gorputza, erritmoa

eta musika) eskuratzen dira eta.

Obrak irakurtzea eta aztertzea, ikuskizunak ikustea eta entseguak egitea une eta espazio egokiak dira bakarka eta taldeka interpretatzeko abilezia eta teknika horiek eskuratzeko. Bakarkako interpretazioak balio du, besteak beste, lantzeko kontzentrazioa, memorizazioa, adierazpen pertsonala eta zuzendariak emandako jarraibideei egokitzeko beharra. Taldeko interpretazioak, berriz, laguntzen du hainbat funtzio betetzeko gaitasuna edo antzezpena egiten den bitartean besteei entzun eta haiekin elkarrengatik garatzen. Konpetentzia hau bereganatzen dutela ziurtatzeko, ikasleak bultzatu behar dira parte hartzera mota guztietako pertsonaiak, egoerak eta gatazka dramatikoak erakusten dituzten eszenak eraikitzeke prozesuetan.

Interpretazioteknikak barneratzeko eta ikasgelaren barruan zein kanpoan obrak antzezteko, beste estrategia eta abilezia batzuk eskuratu behar dira, ikasleengan ikasteko prozesuak berak sor dezakeen frustrazioa behar bezala kudeatzen laguntzeko, bai eta kontzentrazioari eusteko eta emanaldietan segurtasunik eza eta beldur eszenikoa gainditzeko ere. Emozioak kontrolatzeko eta kudeatzeko estrategia horiek autoestimua garatzen lagunduko diete ikasleei, eta ziurgabetasunegoerei eta aurrean izanen dituzten erronkei segurtasun handiagoz heltzeko aukera emanen diete.

Ikasleen irteera-profilarekiko lotura

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, KD2, KPSII1.1, KPSII2, HK1, EK1, KKAK3.1..

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. MAILA	2. MAILA
3.1. Oinarrizko interpretazioteknikak erabiltzea memorizazio estrategiak aplikatuta, eta entseguak entzuteko, hitz egiteko eta ikasteko espazioa direla ulertuta.	3.1. Oinarrizko interpretazioteknikak erabiltzea memorizazio estrategiak aplikatuta, eta entseguak entzuteko, hitz egiteko eta ikasteko espazioa direla ulertuta.
3.2. Ekintza dramatikoa erre kreatzea eta antzeztea, eraginkortasunez, zuzendariak emandako jarraibideei men eginez, kontzentratuta, eta antsietatea eta beldur eszenikoa modu gidatuan kudeatuz.	3.2. Ekintza dramatikoa erre kreatzea eta antzeztea, eraginkortasunez, zuzendariak emandako jarraibideei men eginez, kontzentratuta, eta antsietatea eta beldur eszenikoa modu gidatuan kudeatuz.
3.3. Taldean eta ozen irakurtzea antzerki obrak eta pasarteak, arreta berezia jarritz egoeren eta eszenen konfigurazioan, eta emozioak, hitzen intentsitatea eta elementu prosodikoak nabarmenduta; eta, aldi berean, motibazioa, interesa eta gaitasuna erakutsiz zeregin kolektiboetan inplikatzeko.	3.3. Taldean eta ozen irakurtzea antzerki obrak eta pasarteak, arreta berezia jarritz egoeren eta eszenen konfigurazioan, eta emozioak, hitzen intentsitatea eta elementu prosodikoak nabarmenduta; eta, aldi berean, motibazioa, interesa eta gaitasuna erakutsiz zeregin kolektiboetan inplikatzeko.

4 GAITASUN BERARIAZKOAK

Arte eszenikoak sortu eta zabaltzeko proiektuak egitea, horretarako, faseak planifikatuz, esanahi elementuak hautatuz eta egituratuz eta hainbat funtzio hartuz norberaren gain ekimenez eta eran tzukizunez; hori guztia, komunikazio asmo bat adierazteko, ingurune kulturala aberasteko eta garapen pertsonal, sozial, akademiko edo profesionaleko aukerak identifikatzeko.

4 konpetentzia espezifikoaren deskribapena

Arte eszenikoak sortu eta zabaltzeko proiektu bat diseinatu eta gauzatzeko, taldelan planifikatua egin

behar da. Taldean sortzeko prozesu honetan parte hartzeak balio du ikasleengan ekimena eta autonomia sustatzeko, aurkitutako zailtasunei sormenaren bidezko konponbideak emateko, talde lanaren garrantzia aitortzeko, banakako erantzukizunak hartzeko helburu komun bat lortzearren, eta enpatia eta ahalmenen eta iritzien aniztasunarekiko errespetua indartzeko.

Ikasgai honetan eta beste batzuetan bereganatutako ikaskuntzak aktibatuz, ikasleek proiektuetarako ideiak sortu eta perfektionatu beharko dituzte. Horretarako, hainbat iturri digital eta bibliografiko erabiliko dituzte, jabetza intelektuala errespetatuta eta honako alderdi hauek kontuan hartuta: komunikazio asmoa, aurreikusitako harrera esparruaren ezaugarriak eta proiektuaren bideragarritasuna eta jasangarritasuna, balizko baldintzatzaileei eta muga teknikoei dagokienez. Halaber, honako zeregin hauek eraman beharko dituzte aurrera: esanahi elementu egokienak hautatzea eta egituratzea; interpretaziorako, antzezpenetarako eta eszenaratzerako jarraibideak ezartzea; proiektuaren etapak planifikatzea, bereziki ziurtatuz entseguetarako nahikoa denbora egonen dela, eta, azkenik, zereginak modu orekatuan eta eraginkorrean banatzea, funtzio desberdinak eta horietako bakoitzari prozesuaren fase bakoitzean dagokion lanak identifikatzetik abiatuta. Obra zabalduta, sustatu eta ebaluatzeko plan bat ere aurreikusi beharko dute. Horretan sartzen ahalko da, besteak beste, harremanetan jartzea arte eszenikoen sustapenean aritzen diren erakunde eta organismo publiko zein pribatuekin. Ekintza horiek guztiak aurrera eramateko, oso erabilgarria izanen da kasu zehatzak aztertzea ikasgelan, balioko baitute prozesu osoa bistaratzeko eta ulertzeko: hasierako ideiatik ikuskizuna eszenaratzen den arte.

Proiektuan, halaber, diziplina anitzeko lana sartzeko aukera dago, bai eta askotariko aplikazio eta tresna teknologikoak, analogikoak eta digitalak erabiltzekoa ere. Bestalde, bai interpretazioak bai obraren ekoizpenari lotutako lanen batean aritzeak ikasleei balioko die beren ahalmenak ezagutzeko eta arte eszenikoen esparruari lotutako garapen pertsonal, sozial, akademiko edo profesionaleko aukerak aurkitzeko. Aukera horiek sormenak ematen duen balio erantsia dute.

Ikasleen irteera-profilarekiko lotura

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK3, KD2, KPSII3.1, KPSII6, HK2, HK3, EK2, EK3, KKAK4.1, KKAK4.2

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. MAILA	2. MAILA
4.1. Modu aktiboan parte hartzea arte eszenikoak sortu eta zabaltzeko proiektu kolektiboetan, hainbat zeregin hartuz norberaren gain ekimenez eta erantzukizunez, eta taldeko gainerako kideen ekarpenak eta esperientziak balioetsiz eta errespetatuz.	4.1. Ekimena, erantzukizuna eta taldekontzientzia lagun, arte eszenikoak sortu eta zabaltzeko proiektu kolektiboen diseinuan, plangintzan eta gauzatzean parte hartzea, faseak behar bezala antolatuz, zereginak modu arrazoituan banatuz, proiektuen bideragarritasuna eta jasangarritasuna ebaluatuz, eta esanahi elementuak eta interpretatzeko, antzezteko edo eszenaratzeko jarraibideak hautatuz eta egituratuz.
4.2. Arte eszenikoak sortu eta zabaltzeko proiektuetan parte hartzeari buruzko emaitzak ebaluatzea eta aurkeztea, planteatutako helburuen eta lortutako azken produktuaren arteko erlazioa aztertuta eta argudioekin azalduta haien artean egon daitezkeen aldeak.	4.2. Arte eszenikoak sortu eta zabaltzeko proiektuetan parte hartzeari buruzko emaitzak ebaluatzea eta aurkeztea, planteatutako helburuen eta lortutako azken produktuaren arteko erlazioa aztertuta eta argudioekin azalduta haien artean egon daitezkeen aldeak.
	4.3. Identifikatzea zer aukera eskaintzen dituen artearen esparruak garapen pertsonalerako,

sozialerako, akademikorako edo profesionalerako, haien balio erantsia ulertzea eta iritzi pertsonala adieraztea, modu kritikoan eta errespetuz.

5 GAITASUN BERARIAZKOA

Adierazpen eszenikoak modu kritikoan baloratzea, zer publikori zuzenduta dauden identifikatuz eta haien ezaugarriak eta premisa artistikoak aztertuz; hori guztia, irizpide estetikoa garatzeko, ondarea zabaltzeko eta arte eszenikoez gozatzeko aukerak handitzeko.

5 kompetentzia espezifikokoaren deskribapena

Ikuskizunetara joateak edo adierazpen eszenikoak ikusteak, zuzenean edo bitarteko digitalen bidez, balio die ikasleei ikuslearen rol bikoitzaz jabetzeko; hartzaile aktibo eta, aldi berean, baloratzailerik kritiko dela ulertzeko. Hala, esperientzia hori baliatu behar da publikoaren nozioan sakontzeko eta publikoaren tipologia ezagutzeko.

Katarsia, urruntzea, identifikazioa eta partehartzea modu kolektiboan bizitzeak, orobat, laguntzen du harreraprozesua ulertzen, eta elementu motibatzaile izan daiteke harrera aktiboa delakoa garatzeko. Hain zuzen, analisi kritikorako estrategiak eta teknikak eskuratzeko harrera aktiboaren garapenari lagunduko dio. Estrategia eta teknika horiek lantzen ahal dira taldea osatzen duten ikasleen artean partekatuz obra jakin bati buruzko iritziak eta iruzkinak. Adituek kritika eszenikoetan eta antzerki aipamenetan egindako balorazioek ere lagunduko diote ezagutza elkarrekin eraikitze prozesu horri. Adituen testuetan, ikasleek, honako hauek aurkituko dituzte: hiztegi espezifikoa eta egitura eta tresna berriak. Horiek guztiek beren balorazio kritikoak hobeki artikulatzen lagunduko diete. Balorazio horiek ahoz, idatziz edo hainbat modu konbinatuz egiten ahalko dituzte, uneoro errespetatuz jabetza intelektual, eta kasu bakoitzean egokienak diren kontzeptuak eta analisi estrategiak baliatuz. Kritiketara, hala badagokio, obraren oinarri den testuari buruzko balorazio bat ere sartzen ahal da.

Bestalde, ikasleen kritikak argitaratzea ondarea zabaltzeko tresna eta espazio eszenikoetara joateko gonbidapena izan daiteke.

Ikasleen irteera-profilarekiko lotura

Kompetentzia espezifikoa hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK3, KD1, KD2, KPSII4, HK1, KKAK1, KKAK2.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. MAILA	2. MAILA
5.1. Ikuskizun jakin bat zer publikori zuzenduta dagoen identifikatzea, horretarako argudioak oinarrituta obraren analisisan eta publikoaren erreakzioetan.	5.1. Sormenez defendatzea proposamen eszeniko edo performatibo konplexu bat, jatorrizko edo aurretik bazegoen motibo batetik abiatuta; motibo horrek, hain zuzen, besteak mobilizatu eta kohesionatzeko balio behar du.
5.2. Adierazpen eszenikoak iruzkintzea, terminologia egokia erabilita, iturri fidagarrietatik abiatuta informazioa beste modu batean landuz, eta modu kritikoan hausnartuz adierazpen horien ezaugarriak eta premisa artistikoei buruz.	5.2. Aipamen eta kritika eszenikoak egitea eta partekatzea, terminologia egokia erabilita, iturri fidagarriak kontsultatuta eta zorrotasunez eta tinkotasunez hausnartuz obraren ezaugarriak, harrerari eta premisa artistikoei buruz.

2. OINARRIZKO JAKINTZAK

A. Ondare eszenikoa.

	1. MAILA	2. MAILA
A.1	Arte eszenikoak: kontzeptua, tipologiak eta tradizioak.	Arte eszenikoen esanahi soziala: memoria eta isla. Generoikuspegia eta kulturarteko ikuspegia. Identitatea eta performatibotasuna.
A.2	Arte eszenikoak eta haien historia: aldaketak eta eraldaketak.	Arte eszenikoak eta haien historia: aldaketak eta eraldaketak.
A.3	Dramatizitatea, teatralitatea eta performatibotasuna.	Egungo joerak antzezpen eszenikoan eta performatiboan.
A.4	Ondare immateriala.	Adierazpen ikusgarriak: erritualak eta sozialak. Herrifetak.
A.5		Ahozkoak ez diren adierazpenak.

B. Adierazpen eta komunikazio eszenikoak.

	1. MAILA	2. MAILA
B.1	Esanahi eszenikoko kodeak: izaera, deskribapena eta sailkapena.	Ekintza performatiboak: errealtatea sortzea.
B.2	Espazio eszenikoa, esanahia sortzeko toki gisa. Antzerki konbentzioa.	Egungo espazio eszeniko eta performatiboaren ezaugarriak.
B.3	Baliabide plastikoak: eszenografia bolumetrikoa eta birtuala, karakterizazioa, argiztapena eta soinu espazioa.	Espazio ezeszenikoak: baliabide plastikoen egokitzapena.
B.4	Literatur baliabideak eta beste material batzuk. Testu dramatikoak.	
B.5	Gatazka dramatikoak: pertsonaia, egoera eta ekintza dramatikoak.	Egungo egitura dramatikoak. Memoria performatiboa.
B.6	Pertsonaia dramatikoak: analisisa, karakterizazioa eta eraikuntza.	Pertsonaia, arian, egungo adierazpenetan.
B.7	Jolas dramatikoak, inprobisazioa, dramatizazioa eta sorkuntza kolektiboa.	Jolas dramatikoak, inprobisazioa, dramatizazioa eta sorkuntza kolektiboa.

C. Interpretazioa.

	1. MAILA	2. MAILA
C.1	Prestakuntza fisikoa eta adierazpen aurreko prestakuntza. Gorputza zaintzea.	

C.2	Interpretazio metodoak eta teknikak.	Egungo interpretazio metodoak.
C.3	Interpretearen tresnak: gorputz adierazpena, keinuen bidezkoa, ahozkoa eta erritmikomusikala. Kontzientzia emozionala.	Interpretearen tresnetan sakontzea: gorputz adierazpena, keinuen bidezkoa, ahozkoa eta erritmikomusikala. Kontzientzia emozionala.
C.4	Pertsonaia dramatikoa: antzezpen mailak, helburuak eta funtzioak.	Pertsonaia dramatikoaren eraikuntza gaur egun.
C.5	Interpretazio partitura eta haren gauzatzea.	Sorkuntza performatiboa: prozesua eta gauzatzea.

D. Antzeztea eta eszenaratzea.

1. MAILA		2. MAILA
D.1	Ikuskizun eszenikoa: kontzeptua eta ezaugarriak.	Dramaturgiaren rola proiektu eszenikoa diseinatzerakoan.
D.2	Ikuskizun mota oinarrikoak: klasikoa, abangoardiakoa, gorputz antzerkia, mendebaldekoa, ekialdekoa, objektu antzerkia, musikala, dantza antzerkia, barrukoa, kalekoa.	Proiektu eszenikoaren ekoizpena eta errealizazioa.
D.3	Aurkezpen eszenikoaren beste forma batzuk: happeninga, performancea, bideo antzerkia edo dantza antzerkia.	
D.4	Ikuskizuna diseinatzea: ekipoak, faseak eta lan arloak.	Zuzendaritza artistikoa proiektu eszenikoetan. Ikuskizuna diseinatzea: ekipoak, faseak eta lan arloak. Espazio eszenikoak eta ezeszenikoak. Ahozkoak ez diren hizkuntzak eta hizkuntza teknologikoak integratzea.
D.5	Entseguak: tipologia, helburuak eta antolamendua.	Entseguak: zuzendari artistikoaren eta erregidorearen funtzioak.
D.6	Ikuskizun eszenikoak antzeztea.	Ikuskizun eszenikoak antzeztea.
D.7	Taldean lan egiteko estrategiak. Gatazkak konpontzea.	Taldean lan egiteko estrategiak. Zereginak banatzea eta lidergoa partekatzea. Gatazkak konpontzea.
D.8		Produktu eszenikoak erakustea, zabaltzea, banatzea eta ebaluatzea.
D.9		Ikasgaiari lotutako aukerak garapen pertsonalerako, sozialerako, akademikorako eta profesionalerako.

E. Harrera arte eszenikoetan.

1. MAILA		2. MAILA
E.1	Publikoa: kontzeptua eta tipologia.	

E.2	Harrera antzerkian: katarsia, urruntzea eta partehartzea.	
E.3	Adierazpen eszenikoen analisirako estrategiak eta teknikak.	Adierazpen eszenikoen analisirako estrategiak eta teknikak. Testuaren erlazioa eszenaratzearekin.
E.4	Jabetza intelektual errespetatzea. Norberaren sormena babestea.	Jabetza intelektual errespetatzea. Norberaren sormena babestea.
E.5		Kritika eszenikoa. Aipamen bat idazteko estrategiak eta teknikak.